

A T Z O K O
Andoain


eta andoaindarrak

1. zbk.

1999ko urtarrilaren 31

Eskola (1)

*eta
ando
ainda
rrak*



registrado · Laboratorios Fotográficas E. UTRILLA · Los Cenelles, 23 · Teléfono 52183

COLEGIO LA SALLE

III. de las Escuelas Cristianas

BEHIN-NOLA BAZIREN ANDOAINEN...

Eskola. Nork ez du gogoan nolakoa zen bere eskola. Non ikasten zuten, zein zuten maisu-maistra, nola aritzen ziren kantuan edota jolasean...; memoria oso selektiboa dela esan ohi da eta piska bat geratu eta buruari eragin ondoren denak jabetzen gara eskolari buruzkoak behintzat, ondo gordeta ditugula kaskoan.

Igoal izango da umetako garaia oso delako garrantzitsua norbanakoaren bizitzan. Garai horretan bizitutakoak erabat baldintzatzen ditu ondorengoak. Iraskale harek erakutsitakoa, beste harek jotako kasarrekoak, ikaskide harekin egindako gaiztakeriak... horiek guztiek arrasto sakona uzten digute denori.

Baita guk mahaiaren bueltan bildu ditugun gizon-emakumei ere. Hilabete honetako gaia eskola zela iragarri genienerako hasi ziren hango eta hemen-

go kontuak gogora ekartzen. Joan den urtarrilaren 9an, larunbatez, bildu ginen guztiak horiek denak lasai botatzeko. Eta ia goiz osoa pasa genuen Andoainen garai batean ziren eskolak gogora ekartzen bakarrik!

Izan ere, asko baitira gogoratu beharrekoak. Notre Dameko monjak, Toloxaneko eskola, Concha Arretxerena, Herriko eskolak..., horiek zerrenda luze bateko lehenak baino ez dira. Ondorengo orrietan topatuko duzu horien guztien berri.

Baina esku artean duzun hau ez da eskolari buruzko lehen eta azken zenbakia izango. Gure kontukontalari partikularrek soka luzea dute eta eskolari buruzko kontuei buruz hasita kasik geldiarazi ezinik ibili garenez, bi zenbaki osatzea erabaki dugu ba. Hona hemen, beraz, sail honetako lehenengoa.

NOTRE DAME-KO MOJAK

Gerra aurretik izan zuten Notre Dameko monjek eskola herrian. Orain gutxi arte Etxe Urdina deitzen zitzaion horretan –gaur egungo Txalaka taberna dagoen lekuan– zegoen kokatuta euren ikastetxea.

Herritar asko ibili ziren eskola hartan, horien artean Loren Navarro. “Hasi nintzen bi urterekin eta bertan egon nintzen joan ziren arte. Errepublikan garaian haien kontrako mendekua hartuko zuten beldur ziren; esaten zuten Madril aldean-eta komentu asko ari zirela erretzen eta beraiei ere gauza bera gertatuko zitzaien beldurra zeukaten.



Loren Navarro

“Errepublikan haien kontrako mendekua hartuko zuten beldur ziren; esaten zuten komentu asko ari zirela erretzen... Bota ez zituzten egin baina erabaki zuten ezer gertatu aurretik joatea”.

Askotan esaten ziguten “si... porque vuestros padres no nos quieren...” eta horrelakoak. Bota ez zituzten egin baina erabaki zuten ezer gertatu aurretik joatea.

Eskola pribatua zen, ordaindu egin behar zena. Monjek zuzendu arren, eskola mistoa zen, eta gela beretan ikasten zuten mutil eta neskek. Besteak beste, Urrutia apaiza, Guillermo Moleda, Inaxio Elizondo, Exkerraneko Kontsuelo, Joxemari eta Angel Pujol, Martin Ugalde, egibartarrak... ibili ziren han.

Notre Dameko mojetan umeek ezezik koskortuagoek ere izaten zuten ikasteko modua. Bixente Olanok ondo gogoan du nola hiru klase edo maila zituzten han: “Umeentzako klasea aurrena; ni han sartu nintzen hiru bat urterekin eta bost arte han; gero ‘a la clase de español’; han piska bat maila genuenak gero frantseseko klasea”. Frantseseko “klase hartan ibili ziren gehienek”, gaineratu du Loren Navarrok, “espainola baino lehenago frantsesa ikasi zuten. Frantsesez ematen zituzten gai guztiak eta egi-



Identifikatu gabe ditugu zein eskoletakoak diren argazkiko neskatza dotore hauek. Jakingo bazenu, eskertuko genuke zure laguntza. SECUNDINO ETXEZARRETA

ten zuten frantsesez ondo”.

Bixente Olano berak lehenago ikasi zuen frantsesa espainola baino. “Ni bederatzirterarte egon nintzen han eta gero joan nintzen Tolosara. Nik adin horretan alde egin nuen Andoaindik frantsesa nekiela espainola baino hobeto. Tolosara joan

nintzenez niri farre egiten zidaten espainolez ez nekielako...”

Hiru moja ziren frantsesak, beste bat espainola -asturiana- eta kozinera, berriz, nafarra. Harek bakarrik zekien euskaraz.



Bixente Olano

“Ni bederatzirterarte egon nintzen mojekin. Adin horretan alde egin nuen Andoaindik frantsesa nekiela espainola baino hobeto”.

VILLA ARGENTINA

Kaleberria eta Juan Bautista Erroko bidegurutzeko inguru hori dena hartzen zuen Villa Argentinak. 1900 urtean eraikitako etxea zen, baina Jesuitinak gerra bukatu ondoren hasi ziren han. Ama Kandida herrikoa izanik, garai hartako erretoareak, Don Joaquin Bermejok ahaleginak egin zituen ordena horretako mojak etorri zitezten Andoainera. Bixente Olano: “Notre Damekoak gelditzeko zera egin izan balu harek ez ziren haiek joango. Baina hura zan erretore-erretorea, ez oraingoak bezalakoa, baizik eta agintzen zuena; jesuitinak ekarri nahi zituen eta ekartzea lortu zuen”.

Jesuitinek urte dexente egin zituzten Villa Argentinan eskolak ematen. Gerora pasatu ziren Berrozpeko etxera.



Villa Argentina, gaur egun Kale Berria eta Juan Bta. Erroko bidegurutze horretan zegoen.

CONCHA ARRETXEREN ESKOLA

Gaur egun Bastero inguruan Maria Luisa Etxeberriak harategia duen ondoko horretan zegoen Concha Arretxeren eskola. Lehio baju-bajuak zituen eta kaletik ikusten zen nola aritzen ziren barruan umeak ikasten.

Concha Arretxe eta Juana -biak solterak- aritzen ziren herriko neska-mutikoei eskolak ematen, maistra titulurik batere ez izan arren. *Andoaindik eskola dute gogoran nola Concha Arretxe makil luze batekin aritzen zen erakusten, beti mototxa zintzilik zuela.*

Gutxiren truke egiten zuten haiek lan; ikasleen gurasoek emandako borondatezko laguntzatxoaren truke baino ez. Joxemari Olazabal: “Zerbaitetaz bizi beharko zuten haiek ere, garai hartan ez baitzen ez pent-



Miguel Amas

“Ni hor prestatu nintzen komunio txikirako; Jauna nola hartu behar genuen eta antzekoak erakusten zizkiguten”.

siorik eta ez ezer. Auskalo zenbat ordainduko zieten haiei, erreal bat igoal...” Eskolaren ondoan zuten goxotegia eta han karamelok-eta saltzen ere aterako zuten zerbait.

“Bi urte, hiru urte... eta adin horretako ume guztiak joaten ginen Concha Arretxerengana”, gogoratu

du Maria Esther Arrietak: “Lehendabizi erakusten zigun dotrina, bertsoak; zenbakiak... Ondo gogoratzen naiz ni nola ikasi genuen “dos por dos, cuatro... dos por tres, seis...” horrela, hankei eragin eta aurrera eta atzera mugitzen ginen bitartean. Letrak ere kantuan ikasi genituen, “borobila-borobila “o”; tantua duna “i”; kakua duna “a”..”.

Miguel Amas ere ibili zen bertan: “Ni hor prestatu nintzen komunio txikirako; Jauna nola hartu behar genuen eta antzekoak erakusten zizkiguten. Behin Ubalategiko bixkieta-ko bati pegatu egin zitzaion ahoan jauna, eta behatza sartu zuen. Koskorreko ederra jaso zuen halakorik ezin egin zela eta!”

Concha Arretxeren eskola gerrarekin batera desagertu zen.

TOLOXANEKO ESKOLA

Inaxio Toloxaren eskola Bekoplazan zegoen aurrena, karreterak kurba egiten duen hartantxe. Joxemari Olazabal: "Ni han hasi nintzen eskolan. Baina eskolaz gain han gauza asko egiten ziren; bandaren entsaioak, mataderoa ere han zegoen...". Handik urte batzuetara Toloxaneko eskola gaur egun Amantegi merzeria dagoen horretara aldatu zen.

Imanol Egibarrek gogoratu digu

Anixeto Toloxa Sorabillako sakristauaren semea zela Inaxio, gizon altua, fuertea. Eskolan maixu zen eta, elizan, berriz, organista aritzen zen. Gerra garaian kanpora alde egin behar izan zuen -Miren Zarraga: "guri harek lagundu zigun Santandertik Frantziara pasatzen"- . Gerra ostean berriz itzuli zen Toloxa herrira baina ez zuen eskolarekin jarraitu.



Joxemari Olazabal

"Ni Bekoplazako hartan hasi nintzen eskolan. Baina eskolaz gain han gauza asko egiten ziren; bandaren entsaioak, mataderoa ere han zegoen..."

HERRIKO ESKOLAK

'Eskola nazionalak' deitzen zitzaizaien baziren auzo bakoitzeko bat. Aspaldi-aspaldikoak dira eskola horiek eta gerra ondorenerarte behintzat iraun zuten.

Bazen bat Etxeberrietan. Subijanek jarri zituen lurak eta udaletxeak egin zuen gero edifizioa, alkate zela Zeferino Ansa -"Andoainek izan duen alkaterik onenetakoa, herrikoa", Bixente



Roke Ansa

"Gu hasi ginen ospitalean eta handik aterata hasi nintzen Udaletxe azpian. Eskola kastellana zen, eta han hasi eta berehala La Sallekoak etorri zirenez, gurasoek berehala aldatu ninduten hara".

Olanoren arabera-. Han ibiltzen ziren alde batetik mutilak, eta besteetik neskak.


Miren Zarraga: Ni gerra ostean bederatzirterekin etorri nintzen Frantziatik Andoainera eta orduan hasi ginen Etxeberrietako eskolan, hiru ahizpa eta anaia. Guk genuen maistra Doña Carmen Talavera, emakume republikana bat. Gogoratzen naiz nola orduan eskoletan ematen zen ogi opil bat eta txokolatea 'Cara al sol' kantatzen baldin bazen, baina guk ez 'Cara al sol' eta ez ezer ez, klaro... Gogoratzen naiz nola eramaten zigun ogia komunera,

ezkutuan. Eta norbaitek zabaldu zuen hala ibiltzen zela eta salatu egin zuten. Eta geroztik penaz esaten zigun "aprender a cantar el 'Cara al sol' porque sino no os puedo dar el pan y el chocolate"... eta gu goseak geundenez..."

Mutilen maisu, berriz, Don Guillermo Sierra Calderon aritzen zen, garai batean fraile izandakoa. Miren Zarragak ederki gogoratzen du nola bere anaia alde egin zuen hark: "Eskolan", hasi da kontari, "atera behar izaten zen bandera espainola balkoira. Halako batean nire anaia jarri zioten eginbehar hori, baina gurasoek ez zioten uzten halakorik egiten. 'Si no sacas la bandera, te van a castigar', esan zion maisuak eta etxera bidali zuten. Gero, maisua, gaez ezkutuan joaten zitzaion etxera eskola ematera, atzeratu ez zedin".

Beste herriko eskola zegoen Bastero inguruan. Alondegiko gainean zegoen kokatua eta Doña Maria Badiolak zuzentzen zuen. Hura ere errepublikana zela gogoan du Esther Arrietak. Gerora, La Salleko fraileak gaur egungo ikastetxera aldatu eta ondoren, arkupetako etxean jarraitu zuen Basteroko eskola nazionalak, Francoren garaian.

Eta hirugarren herriko eskola, azkenik, Udaletxepean zegoena; han, Don Ramon Esnal zen maisu eta zuzendari. Eskola horretan tarte txiki batean ibili zen Roke Ansa. "Gu hasi ginen ospitalean baina hura zortzi urterartekoa-edo zen eta handik aterata hasi nintzen Udaletxe azpian. Eskola kastellanua zen, eta han hasi



Basteroko Herriko Eskoletako ataria.

eta berehala La Sallekoak etorri zirenez, gurasoek berehala aldatu ninduten hara".



Miren Zarraga

"Guk genuen maistra Doña Carmen Talavera, emakume republikana bat. Gogoratzen naiz nola orduan eskoletan ematen zen ogi opil bat eta txokolatea 'Cara al sol' kantatzen baldin bazen, baina guk ez 'Cara al sol' eta ez ezer ez, klaro..."

OSPITALEKO ESKOLA

Kaletxikitik haruntzako ume guztiak joaten ziren ospitalera, gero Milagrosa deitu izan zitzaion hartara. Karitateko mojek zuzentzen zuten eskola hura, kapela moduko zapi zabal-zabalekin ibiltzen ziren orde-

nako haiek berak.

Umeek lehenengo andereino Sor Segunda izan zuten eta harekin euskaraz ikasi zituzten lehen lezioak. Roke Ansa: "Gu euskaraz hasi ginen eskolan eta hura guretzat izan zen



Gaur egun itxura hauxe du ospital zaharrak.



Mikaela Ansa

"Bai txikitik euskaraz hasi ginen. Dotrina piska bat, zenbaki batzuk... eta hortik aurrera ez zen asko gehiago ikasten".

suerte ikaragarria". Mikaela Ansa arrebak gaineratu dio, ordea, gaztelaniara pasatzen zirela hasi eta gutxira: "Bai txikitik euskaraz hasi ginen, baina pixka bat koskortzerako erdaraz ere ikasi genuen; bietara egin genuen gero. Dotrina piska bat, zenbaki batzuk..., eta hortik aurrera ez zen asko gehiago ikasten".

Ospitaleko eskolak, Milagrosak, orain dela urte gutxirarte iraun du, harik eta La Sallerekin bat egin zuen arte. Ordurarte zuzendu zuten kari-dedeko mojek.

SUBIJANAKO HAURTZAINDEGIA

Algodoneran barruan zegoen eskola bat, han lan egiten zuten emakumeen haurrentzat. Hara joaten ziren egunero ospitaleko mojak. Joxepa Ormaetxea: "zer karroa zuten haiek, e?" "Karroa? Karroa, kotxeroa eta zaldiak zituzten eta negurako eta udarako karro bana, gainera", gaineratu dio Joxemari Olazabalek. Lehenengo kotxeroa, Etxebeste izan zen, Pablo Etxebesteren aita zena, gero Miguel Telleria eta gero Julian Oiartzabal Iztuiztako 'Exkerra'. "Oso polita zen hura. Daa! Ematen zien zaldiei latigoarekin eta aurrera!". Autorik eta apenas zen garai hartan harek txunditzen zituen herriko haurrak. Karroa noiz pasako zain-zain egoten ziren, ikusteko baino gainera igotzen saiatzeko. "Ni eskolatik aterata joaten nintzen Etxeberrietatik harrobira aitari bazkaria eramatera eta ahaleginak egiten nituen karroa atzean zuen barrara igotzen. Baina behin kotxeroak atzera begiratu eta



Bixente Olano

"Bularra emateko garaia heltzen zenean, algodonerako emakumeek eskubide oso-osoak zuten ordu laurden bat edo ordu erdi bat-edo haurrekin pasatzekoa".

ikusi zidan eskua, eta zas! latigoarekin eman eta lurrera bota ninduen, bazkari eta guzti", gogoratu du Miren Zarragak.

Mojek egunero bi aldiz egiten zuten ospitaletik Subijanara eta Subijanatik ospitalerako bidea. Goizean umeak zaintzera joan eta gero, ostera, arratsaldean buelta haurtzaindegira.

Haurtzaindegi hura lan egiten zuten emakumeentzat propio ireki zuten Subijanak. Bixente Olanoren

arabera, "Subijana, lantegiko jabea, zen egoskorra, diktadorea, alua euskaraz esaten den bezala. Langileek bere aurrean pasatzen zenean txapela kentzen zuten..., pentsa. Baina, hala ere, zen bihotz onekoa eta 'labor social' esaten dena asko egin zuen. Begira: Garai hartan emakume ia denek ematen zieten bularra umei eta bularra emateko garaia heltzen zenean, algodonerako emakumeek eskubide oso-osoak zuten ordu laurden bat edo ordu erdi bat-edo haurrekin pasatzekoa".



Joxepa Ormaetxea

"Gogoratzen zerate ospitalerako mojak Subijanara joateko zer karroa zuten haiek, e?"

LA SALLE

1933an etorri ziren Andoainera fraileak. Eskola gaur egun Eguzki taberna dagoeneko parean zegoen etxean jarri zuten, arkupeak zituen etxe hartan hain zuzen ere. Bizi, berriz, Inoneko estankoko horretan zegoen etxean bizi ziren fraileak. Han zuten euren kapila eta guzti.

Etorri berritan paisano ibiltzen



Imanol Egibar

“Aurren-aurrena uniforme eta sotana jantzi zuena, babero eta guzti, izan zen tripa haundi hura. nola izena zuen? Eusebio bai!, harek”.



Iñaki Arregi

“Ni hasi nintzen han zazpi urterekin. Egia da, han, oso ondo erakusten zutela. Nik Jose Maria Iciarrekin ikasi nuen ‘croquis a mano alzada’ egiten”.

ziren fraileak, bai Gerra garaietan eta baita gerra ostean ere, dezente. Imanol Egibar: “Aurren-aurrena uniforme eta sotana jantzi zuena, babero eta guzti, izan zen tripa haundi hura, nola izena zuen? Eusebio bai!, harek. Gero, gainontze-koek ere jantzi zuten.

1941-42an pasatu ziren Goikoplaza ondoko gaur egungo eskolara. Orduan Jose Maria Iciar zen La Salleko zuzendari. Itzal handiko gizon hark urte dexente egin zituen Andoainean La Salleko arduradun.

Lau klase zituzten, umeetatik hasi eta koskortuetaraino. Iñaki Arregi han hasi zen eskolan eta han bukatu zituen bere ikasketak hamabi urterekin. “Ni hasi nintzen han zazpi urterekin eta La Sallen bukatu nituen ikasketak. Egia da, han, oso ondo erakusten zutela. Nik Jose Maria Iciarrekin ikasi nuen ‘croquis a mano alzada’ egiten”.

Ikasgai horiek erdaraz erakusten ziren; testuliburuak ere hala ziren. Baina Iñaki Arregik dioenez, euskarazaleak ziren fraileak ere.

ASINTXIONEKO ESKOLA

Notre Dameko mojak herritik joan eta gero ireki zuen Paxek bere eskola orain gutxi arte Gaztetxea izan deneko eraikuntza hartan. Eskola partikularra zen.

Gerra ostean ere zabalik jarraitu zuen Asintxioneko eskolak.



Asintxioneko eskolaren egoitza. gero urtetan Gaztetxea izan zena.

DOÑA JUANITAREN ESKOLA

Doña Juanitak ere Notre Dameko mojak joan ostean ireki zuen eskola Eguzki tabernaren parean zegoen etxean. Euskara hutsez erakusten ziren han ikasgai guztiak.

Eskola berezi-berezia zela azpimarratu digute han ibili zirenek, Loren Navarrok, esate baterako. “Han beze-la ez zen inon ikasten”, dio Lorenek.

“Terraza, errekarri begira, bakoitzak bazuen bere lur zati txikia eta jostatze-ko garaian atxur txikiak-eta bagenituen eta han ibiltzen ginen. Gero ganbaran jarri zituen kolunpioak eta taula bat ere egin izan zuen antzerkiak egiteko. Antzerki lanak guk idazten genituen; euskara eman behar genuen garaian esaten zuen “aber

zer egingo dugu?” eta gaia proposatzen genuen. Gogoratzen naiz behin nola egin genuen bat gizon alper bat bazela eta andrea haserretu egiten zela... Lanak berak zuzentzen zituen eta gero egiten genituen paperak banatu. Azkenean, igandetan, egiten zen antzerkia. Nik ez dakit zer egiten genuen baina hura egiten zen bete.

Han biltzen zen diruarekin joaten ginen Donostiara San Telmo, Aquariuma, Miramarko jauregia eta Igeldo ikustera. Han zeuden bi andoaindar, Juanita eta Agustina Garagorri, eta hango beste langileek jai zuten egunean gu ibiltzen ginen, libre”.

Denbora gutxi iraun zuen Doña Juanitaren eskolak, abertzale eta euskaltzale sutsua izanik, gerra iritsi orduko hanka egin behar izan baitzuen. Ikusten zuen euskara galtzen ari zela eta berak egiten zituen aha-
leginak guztiak gure hizkuntza salbatzeko.

Maria Esther Arrietak miresmenez gogoratzen du Doña Juanita : “Hura zen abertzalea eta euskaltzalea goitik beheraino. Haren ardura guztia zen euskara. Neri esaten zidan: “Ai Esther, Esther.. nik ez ditut ikusiko baina zuek bai, ezagutuko dituzue bai euskarazko eskolak...”. Eta hark esanda bezala, iritxi dira ikastolak, lizeoak ...

Gerra usaia heltzerako, baina, gauzak osotara okertu zitzaizkion Doña Juanitari, Franco eta bere jarraitzaileen etsai bihurtu baitzen. “Egun batean etxeak registratzen ari zirela berak egin zuen bere ikurriña erreka atzean lurperatu”, kontatu digu Maria Esther Arrietak. Arriskua pasa zenean biak joan ziren ikurriñ hura ateratzera. “Baina makila bakarrik atera zen, gainerakoa egin zen



La Sallekoak Andoainera etorrita izan zuten eskola arkupendun etxean zegoen. Haren eskuinekoan jarri zuen Doña Juanitak bere ikastola. EMILIO TRUCHUELO

usteldu”, dio Maria Estherrek.

Ikastola hura gerrarekin batera itxi zen, euskara itzalpera kondentatu baitzuten agintari berriek. Doña Juanitaren lana, baina, ez zen alferrikakoa gertatu. Gauzatu egin zen bere borondatea, bera hil zenetik urte asko igarota izan arren. Izan ere, bere eskola utzi zuen egunen batean euskara erakutsi zedin bertan, eta hala egin zen. Aita Larramendi ikastolak etxe zahar hartan hasi zuen bere ibilbidea.



Maria Esther Arrieta

“Hura zen abertzalea eta euskaltzalea goitik beheraino. Haren ardura guztia zen euskara salbatzea” .

SASIERROTA

Gerra ostean zabaldu zuten eskola Sasierrota baserriko ganbaran. “Eskola elegantea zen hura”, dio Joxepa Ormaetxeak. Maria Jesus Ansa hasi zen bertan maestra egin zenean, bere izeba Señorita Doloresekin batera. “Gogorra zen gero hura!” gogoratu dute emakumezko guztiek batera... “kaskarreko ederrak ematen zituen”, dio batek. Loren Navarro eta Maria Esther Arrieta: “eskola ematen zela ez zuen uzten komunera joaten eta gero ume guztiak eskolatik atera eta lehenengo gauza pixa egitera Joaquina Seroraren etxera!”.

Maxima maestra ere Sasierrotan aritu zen Donostian erretiroa hartu ondoren.



Sasierrota baserriko ganbaran ematen zituzten eskolak.

... ETA HURRENGO ZENBAKIAN ZER:

Sarreran iragarri dugunez, hurrengo zenbakian ere eskolari buruz arituko gara. Behin-nola Andoainen ziren eskolak zein ziren jakinda, haietan zer ikasten zen eta nola ikasten zen jakinarazteko irtengo gara plazara, betiko moduan, hilabeteko azken igandean.


Ikasgelak barrutik nolakoak ziren, zein libururen laguntzaz ikasten zuten, txintxo portatu ezean bete behar izaten zituzten zigorrak, baleak... horiei guztiei emango diegu errepasoa.



EMILIO TRUCHUELO

Zuk ere bildu nahi al duzu gurekin?

Andoaindarra bazara, aspaldiko kontuei buruz jardutea gustoko baduzu eta hiztuna bazara estimatuko dugu zure konpainia. Hilean behin biltzen gara kontu-kontari aritzeko. Proposamenak tentatzen bazaitu, deitu 300732 telefonora eta jarri gurekin harremanetan, ados?



EMILIO TRUCHUELO

Argazki zahar bila gabiltza

Eskuan duzun agerkari honetako hurrengo zenbakiak prestatzen ari gara jada. Gai eta asmo asko ditugu eskuartean, baina horiek ilustratzeko argazki zahar gutxi. Etxean kutxa zaharren batean gordeak dituzun irudi horiek bihotz-bihotzez eskertuko genituzke.



Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Maddi Trutchuelo. **Argazkiak:** Udal artxiboa, La Salle ikastetxeko artxiboa eta Manu Mujika. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.